



**LESAKAKO UDALA (NAFARROA)**  
**AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)**

**LESAKAKO UDALA**

**Jakinarazpen ediktua**

Alkatetzaren 129/2018 Ebazpena, martxoaren 21ekoa, jakinarazi ahal izan ez denez gero, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen da, Administrazio Prozedurari buruzko Legean eta aplikagarria den gainerako legerian xedatutakoa bete dadin.

**128/2018 ebazpena, martxoaren 21ekoa, Lesakako Udaleko alkateak emana, biztanleen udal erroldan ofizioz baja emateko espedientea hasten duena**

Udal zerbitzuek jakin dute ondoren adierazten den pertsona ez dela aspaldidanik herri honetan bizi, nahiz eta Lesakako biztanleen udal erroldan inskribatua egon:

- Liliana Boghean, Y1370007A bizileku-txartela duena.

Kontuan hartuz, Toki Entitateen Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren gaineko Erregelamenduko 72. artikuluekin bat etorriz, Udalak baja emanen diela, inskripzio okerragatik, aipatutako Araudi horren 54. artikuluan ezarritako baldintzak bete gabe erroldatuak agertzen direnei.

Ebatzi dut:

1 – Lehen aipaturiko pertsonari herri honetako Biztanleen Udal Erroldan ofizioz baja emateko espedientea hastea, ez delako bertan bizi.

2 – Interesdunari jakinaraztea ebazpen hau hartu eta hurrengo 15 eguneko epean baja honekin ados dagoen ala ez adierazten ahal duela. Azken kasu honetan, egoki juzgatzeko dituen dokumentuak eta justifikazioak aurkez ditzake.

Lesakan, 2018ko apirilaren 16an.

Alkatea



Jose Luis Echegaray Andueza